



## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

ikastetxea:	IKASBIDEA	kodea:	
etapa:	BATXILERGOA	zikloa/maila:	1
arloa/irakasgaia:	FILOSOFIA		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		
irakasleak:	Arantza Lasarte Uranga	ikasturtea:	2021-2022

### Zeharkako kompetentziak

1. Hitzezko, hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpentzia.
2. Norbera izaten ikasteko kompetentzia.
3. Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia.
4. Ekimenerako eta izpiritu ekintzailerako kompetentzia.
5. Ikasteko eta pentsatzeko kompetentzia.



helburuak	ebaluazio-irizpideak
<p>1.- Gaur egungo gizarteaz eta hura aldatzeko beharraz gogoeta egitea, eta horretan, datu adierazgarriak biltzea eta aztertzea, lekuan lekuko gertaerak irakurri ahal izateko beharrezkoa den oinarriko interpretazio pertsonala egituratzeko; Euskadi barruan norberarengandik gertuen gertatzen direnak, batez ere.</p> <p>2.- Norberaren ingurua transformatzeko prozesuak proposatzea, eta horretan, sormena eta konpromiso pertsonala oinarri hartzea, gutako bakoitza aldaketa sozialaren alde urratsak egin ditzakeen eragile potentziala dela ulertzeko.</p> <p>3.- Testu filosofikoen barne-koherentzia eta testuinguru historikoa aztertzeke gai izatea, eta horretan, testuok aurkeztutako arazoak eta emandako argudio nahiz konponbideak identifikatzea, norberaren ekarpen pertsonalak ere barnean hartzen dituzten iruzkin kritikoak egiteko.</p>	<p>1.- Ea gai den filosofiaren berezitasuna identifikatzeko eta filosofiak, errealitatea interpretatzeko baliabidea den aldetik, gaur egungo gizartean izan behar lukeen funtzioa zein den jakiteko.</p> <p>2.- Ea gai den filosofiak proposatzen dituen galde-erantzunen ezaugarriak eta gaurkotasunaz gogoeta egiteko.</p> <p>3.- Ea gai den zientziaren funtzioa, esplikazioereduak, ezaugarriak, metodoak eta zientzia motak zein diren azaltzeko, eta horretan, ea badakien zer antzekotasun eta desberdintasun dauden zientziaren eta filosofiaren artean (objektibotasunaren auzia, teoriaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea...).</p> <p>4.- Ea gai den errealitatearekin lotutako auzi nagusiak azaltzeko, eta horretan, ea gai den zenbait teoria metafisiko identifikatzeko eta elkarrekin kontrastatzeko, eta ea aintzat hartzen duen zeinen garrantzitsua den</p>



4.- Ekoizpen sinboliko adierazgarrienen bidez norberaren ingurunearen alderdi sinbolikokomunikatiboa ikertzea eta aztertzea, Euskadiko esparru sozio-kulturala modu teoriko-praktikoan ezagutzeko eta, horrela, errealitatea ulertzeko interpretazio-gakoak eskuratzeko.

5.- Filosofiaren berariazko baliabideetan oinarrituta, eguneroko gertaerei ikuspegi kritiko-erreflexibo batetik aurre egiteko baliabide intelektual eta epistemologikoak eskuratzeko.

6.- Norberaren ideien alde bai ahoz eta bai idatziz argudiatzeko gai izatea, eta horretan, norberaren ideiak eta argudioak besteenekin kontrastatzea, diskurtso pertsonal koherenteak josteko.

7.- Elkarrizketa filosofikoan trebatzea, eta hori geureez bestelako ikuskerekin modu arrazionalen bat egiteko bidetzat hartzea, haren bidez errealitateari buruzko norberaren ikuspegia eraikitzeko.

8.- Lan intelektual autonomorako oinarritzkoak diren prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea eta aukeratzea, idatzizko iturrien eta iturri digitalen (Internet) bidez; lortutako informazioa kontrastatzea, aztertzea, sintetizatzea eta ebaluatzea, arazoak zorrotz aurkeztea ezaugarri duten eztabaida arrazionalen bidez; eta informazio hori guztia jarduera filosofikoetan eta jarduerokin lotutako ekoizpenetan erabiltzea.

metafisika errealitatea eta geure burua ulertzeko.

5.- Ea gai den gaur egungo filosofiak gizakia nola kontzeptualizatzen duen aztertzeke eta horri buruz gogoeta egiteke, eta horretan, ea gai den kontzeptualizazio hori euskal kulturaren eta beste kultura batzuetan (Mendebaldekoan, Ekialdekoan, Afrikan, amerindiarren artean...) egiten direnekin alderatzeko.

6.- Ea gai XXI. mendeko gizarte moduak aztertzeke, eta horretan, ea badakien mota askotako errealitateak alderatzen, euskal gizarte nolakoa den azaltzen lagunduko dioten ezaugarri eta bereizgarriak mugatzeko.

7.- Ea gai den Bigarren Modernitateak gure eguneroko bizitzan eta gure inguruko pertsonenean izandako eragin itzelaz gogoeta egiteke.

8.- Ea gai den dimentsio sinbolikoa kulturaren elementu bereizgarria dela ohartzeko, eta ea hori lotzen duen euskal kulturarekin.

9.- Ea badakien azaltzen komunikazioak zernolako funtzioa izan duen gizakiaren, gizartearen eta kulturen garapenean (euskal gizarte eta kulturarenean, batik bat), eta, alde horretatik, ea gai den esplikatzeko hizkuntzak, gizakiak munduarekin erlazionatzeko eta errealitatea interpretatzeko darabilen baliabide sinbolikoa den aldetik, zer-nolako garrantzia duen.

10.- Ea gai den Filosofia Politikoaren funtzioa, ezaugarriak eta auzi nagusiak zein diren azaltzeko: estatuaren jatorria eta legitimitatea; norbanakoen eta estatuaren arteko harremanak; indarkeria politikoa; ikuskera politiko desberdinen arteko akordio eta kontsentsuak funtsatzeko aukera... Eta horretan, ea aintzat hartzen duen filosofiak Mendebaldeko teoria politiko handietan izandako garrantzia.

11.- Ea gai den gure erlazio etiko eta politikoaren ereduaz eta erlaziook dakartzaten ondorio sozialez gogoeta egiteke.

12.- Ea gai den estatu-nazioak Bigarren Modernitatean duen gaurkotasunaz eztabaidatzeko, batetik, eta berdintasun eta inklusio unibertsala ezaugarri izango dituen gizarte transnazional batera igarotzeko proposamenak egiteko, bestetik.



**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

Hauetara dira aurtengo ikasturtean jorratu ditugun gaiak ebaluaketa bakoitzean.

**1. Ebaluazioa:**

**1. GAIA: Jakintza filosofikoa: jatorria, zentzua, beharra eta historia.**

- Filosofiaren jatorria
- Jakintza filosofikoa eta zein bereizgarri dituen
- Jakintza filosofikoa historian zehar
- Filosofiaren funtzioa eta egungo balioa

**2. GAIA: Ezagutza zientzia eta teknologia. Egiaren auzia**

- Giza ezagutza
- Ezagutzaren teoria filosofikoak eta ezagutzaren mugak.
- Egiaren auzia
- Ezagutza zientifikoa

**3. GAIA: Errealitatea. Metafisika**

- Metafisika eta izatearen azterketa.

**2. Ebaluazioa:**

**1. GAIA: Giza bizitzaren zentzua.**

- Giza bizitzaren zentzua
- 

**2. GAIA: Gizakia eta hominizazio prozesua. Natura eta kultura gizakiarengan.**

- Gizakiari buruzko gogoeta filosofikoa.
- Giza izatea eta hominizazio prozesua



- Kultura eta humanizazio-prozesua
- Zenbait eztabaida antropologian

### **3. GAIA: Mundu-ikuskerak eta naturaren filosofia**

- Naturaren filosofia
- Antzinako mundu-ikuskerak
- Unibertsoaren ikuskera modernoa
- Gaur-egungo mundu ikuskera

### **3. Ebaluazioa**

#### **1. GAIA: Etika eta politika**

- Filosofia politikoa
- Estatuari buruzko ikuskerak
- Pentsamendu utopikoa
- Etika filosofiaren adar bat
- Teoria etiko batzuk
- Etika aplikatua

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

Irakaslearen eginkizuna ikasleen ikaskuntza bideratzea, indartzea eta ikaskuntzaren garapena gidatzea izango da.

-Gelan giro ona sortu. Horretarako Ikaskuntza kooperatiboko teknika ezberdinak erabiliko ditugu.

- Ikaskuntza aktibo eta autonomoa bultzatuko da.

- Zenbait gai lantzen hasi aurretik hastapeneko ekintzak burutuko dira: ikasleen aurreko ideiak aso, ahoz zein idatziz.

-Eskemak, mapa kontzeptualak burutuko dira.

-Eztabaida ezberdinak sustatuko dira gaien inguruko ikuspegi kritiko bat sortze aldera.

-Irakurketa ezberdinak: artikuluak, liburuak, berriak...

- Azterketak.

-Disertazio filosofikoak



<b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]	<b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
-Kontzeptuak eta prozedurak lanen eta azterketen bidez neurtuko dira.  -Eguneroko jarduna (parte hartzea, jokabidea, apunte eta eskemak, puntualitatea) lanetan eta klaseko ekintzetan baloratuko dira.  *Lanak, adierazten den egunean entregatu beharko dira. Ezin da beranduago entregatu.	AZTERKETA %50  LANAK (banakakoak zein taldekakoak) %40  EGUNEROKO JARDUNA %10
<b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK</b> [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].	
Ikasle batek ebaluazio bat errekupezatzeko, kontzeptuak eta prozedurak gainditu beharko ditu. Beraz, teoria eta disertazioa berriro egin beharko ditu. Ebaluazioan zehar egindako jarduerak gorde egingo dira notarako. Ebaluazio bat baino gehiago gainditu gabe izatekotan edukien hautaketa egingo da. Azterketaren eredia mantenduko da: teoria eta disertazioa.	

#### OHARRAK

COVID-19 dela eta, ikasleek klasean erabiliko den material guztiak classroom-ean topatuko dituzte baita klase ordu bakoitzean burutuko den egitekoaren egutegia ere. Beraz, edozein momentutan jarraipena izango dute plataforma horretan.